

AITA KARDABERAZ ELGORRIAGaren BIZITZA (*)

Hernani, 2003-II-27

*Patxi Altuna,
euskaltzain osoa*

Hirugarren aldiz ekiten diot denbora gutxian Kardaberazen bizitzari, pixka bat berriturik zerbait hobetoxeago aterako delakoan. Egia da ikertzaile gutxi atzeman diotela haren irudiari eta nortasunari, eta neronek ere Euskal Filologiako eskoletan ez nuela zeharka baizik egin. Beste bi idazle handik kentzen zioten tokia eta egiten itzala, Larramendi-k eta Mendiburu-k-. Gaur ere ez da ene asmoa ikasientzat eta adituentzat hitzaldia egitea, ezta ere kantu bat egitea Kardaberazen birtuteak eta jainkozaletasuna zuen aurrean goraitatuz, nahiz esan diezazuekedan behintzat nola ene ama zenak kontatu ohi zuen etorri zela behin gazte zelarik Loiolara beste zenbait milaka jenderekin Erroman barrena Hernanitik zekartzaten Kardaberazen gorpuzkinei ongi etorri egitera eta gurtzera. 1908ko maiatzaren bira zen; norbaitzat zedukaten nonbait. Gorpuzkin haiek Loiolan daude kutxa eder batean gordeak. Ez neukan agian gauza hauek zer esanik, baina esan gabe ere ezin geldi nintekeela iruditu zait.

* * *

Hernanin sortu zen, dakizuenez, 1703an, abenduko «inozente» egunean, 28an. Egun horren kutsua ote zuen bizi guztian zeriona, haur errugabe-xalorarena? Herriko eskolan egin zituen lehen ikasketak, lagundurik –hori bai– bere osaba apaiz Martin de Kardaberazek, norekin urte askotan harreman estuak izan baitzituen. Izan ere, Kardaberaz etxe handiko semea zen. Aita Hernaniko alkate izan zen 1708an, Agustinen haurtzaroan. Deituraren bigarren zatiak, **beraiz**-ek, luzaro iraun zuen eta garaiko agiri batzuetan agertzen da. Gero 1713-1714an Donostiako apaiztegiko eta Udaletxeko eskribau izan zen eta hiri bereko artxibozain.

Herriko eskola utzi eta gramatika ikasteko Kardaberaz Donostiara aldatu zen, jesuiten ikastetxera (1714-1717). Hori dela eta, haurtzaroko eta gaztaroko

(*) Oharra: Aipamen guztiak Leon Lopetegi-ren AGUSTIN KARDABERAZ-en, *EUSKAL LAN GUZTIAK* liburutik eta Jose Ignacio TELLECHEA IDIGORAS-en *LARRAMENDI y CARDAVERAZ* liburuxkatik hartuak.

zati bat Donostian igaro zuen; hangoa baitzuen ama ere, Maria Manuela de Elgorriaga. Aldiz ez zuen edo ez da behintzat inoiz aipatzen anai-arrebarik.

Beste jolas edo joko batzuetara izan zezakeen zaletasunen berririk ez dugu, bai, ordea, oraindik gazte zela sortu zitzaion pilotakoa. Esaten digu hamaika urte edo zituenean, oso pilotazalea zela eta batzuetan ikasteko denbora ez galtzearren, eguerdian jokatzeko zuela eta bazkaltzera berandu iristen, harik eta behin bere izeba batek eman omen zion arte haserre serio samar bat eta gehiago ez jokatzeko erabaki.

Konturatzeko nolako giroa izan zitekeen orduan Euskal Herrian eta inguruan, gogora ditzagun Espainiako «Guerra de Sucesión» eta Alberoniren aursakeriak eta ondoren, 1718an, frantsesen eraso Hondarribiaren, Pasaiaren eta Donostiaren kontra. Beharrik orduko gure Agustín haize berriak amastera aitzak igorria zuen beste toki batera eta ez zuen berri zehatzik jakingo Donostian gertatzen zenaz. Bai bere aitak, noski, eta gau txar bat baino gehiago igaro zuela pentsatzea ez da arinkeria.

* * *

Gramatikan amaitzen ziren jesuitek Donostian ematen zituzten ikasketak eta hori ikasi ondoren filosofiari ekiteko aitak Iruñea hautatu zuen Agustinentzat. Bere arrazoiak izango zituen Bilboren aurretik jartzeko. Gauza da Iruñean burutu zituela hiru urteak (1717-1720). Baina egiantzeko da oporretan itzuliko zela Hernanira eta Donostiara egun batzuk igarotzera. Halaberharrez urte hartan Gipuzkoako Junta Jeneralak/Batzar Nagusiak Hernanin biltzekoak ziren eta, nork meza emango eta nork hitzaldia egingo, gure Manuel Larramendi hautatu zuten. Hor ditugu bi familiak elkartuak, lehendik ez bazeuden.

Askotan galdetu diot neure buruari non edan zuen gure Juan Ignazio Izueta handiak bertso eder hau ontzeko informazioa:

«Ene biotzeko / aita Larramendi / bost egiya esanda / joan ziñen emendi».

Egundokoak esan zituen nonbait pulpitotik hizlari gazteak eta gero herri-herri barreiatu albistea, urte mordoxka bat geroago gure Izuetaeren belarrietara iritsi zen arte. Jakin behar da, izan ere, Larramendi hil zen urte berean jaio zela zaldibiarra (1767).

Agustinek orduko hamazazpi urte zituen eta geroari buruz zerbait pentsatu edukiko zuen. Aitak ere bai, ordea, bere asmoak behin eta birritan bere baitan hausnartuak, eta azkenik hau Valladolida igortzea erabaki zuen 1721ean, hango Unibertsitatean legegizon bikain egin zedin aitaren antzera. Semeak, ordea, aurea hartu zion; urtebete bakarrik ikasi zuen eta bitartean umotu zen, dirudienez, haren barnean jesuita egiteko erabakia eta halaxe egin ere zen han ondoko Villagarcía de Camposko nobiziadoan jesuita sartuz. Zer esanik ez, aitak bere biziko atsekabea eta haserre hartu zuela. Aski izan bedi esatea Aita Santuaren Ordezkoaren bulda bat lortu zuela eta harekin urtebete baino lehen

bere semea nobiziadotik atera eta San Francisco el Grande deritzan fraidetxean sarrarazi, haren bokazioa irmoa zen ala ez frogatzeko. Aitak ezarritako froga gainditu eta San Luis egunean, ekainaren 21ean, hangoxe San Inazioaren kolegiara itzuli zen.

Kardaberazen lagundiko ikasketak ohikoak izan ziren, hamaika urte denera: bi urte nobizio Villagarcian, urtebete kolegio batean mutikoen maisu, hiru urte Filosofia ikasten Palentzian, aita Inazio de Egiluz erretore zuela, eta teologia lau urte ikasten hastea zegokionean, halaberharrez eritasuna sortu zitzaion ustekabean eta Donostiara igorri zuten bost eguneko oporrak ematera eta handik Hernanira hiru hilabete bere osaba don Martinengana «esnea hartzera», hala dio karta batean, «eta zaldiz ibiltzera, Donostian ezin egin nezakeena». Teologia ikasten du gero Valladoliden 1726tik 1730era San Ambrosio kolegioan, aita Larramendi irakasle duela, eta teologia osoro bukatu baino lehen, hirugarren kurtsoa amaitzean, apaiz egiten da han bertan, abenduaren 26an. Hala ere ez zuen lehen meza eman geroago arte, 1730eko urtarrilaren lehena arte.

Bitartean beste egiteko garrantzitsua gainditu behar zuen eta harekin izan zen oso arduratua egun batzuetan. «Acto Mayor de Teología» deitzen zen azterketa aprobatu behar zuen ikasle eta irakasleen aurrean, latinez noski, eta hamabost egun lehenago, 1729ko abenduaren 18an defendatu zuen zuzendari Aita Larramendi berbera zuela. Tesigaia *Aingeruak* izan zuen. Berehala Hirugarren Probantza hasi zuen urte bereko abuztuaren hogeita hamarrean. Zer esanik ez, ezin hobeto atera zela eta azken lau zinitzak egitea irabazi zuela. Honek erakusten digu bazela bi euskaldunen artean harremana eta estimua. Gehiegi pentsatzea ote da hitz egin zutela elkarrekin euskaraz eta Euskal Herriaz eta maisua saiatu zela berotzen bere ikasle azkarraren bihotza, baldin behar ere bazuen, biok hain maite zuten herriaren alde lan egiteko?

* * *

Kardaberaz guztiz baztertu gabe, hartaz ari baita ene hitzaldia, biribil dezagun oraino Larramendiz esana eta aipa dezagun hirugarren laguna, nahiz beti hirurok lagun min-minak izan ez ziren. Hiruretan zaharrena Manuel Larramendi andoaindarra zen, Kardaberaz baino hamahiru urte lehenago, 1690ean, jaioa. Ama alargundu, Bilboko jesuiten ikastetxera osaba jesuitak morroi-txiki –hala deitzen genien– lanetara eramanez, bere adimen harrigarriaz guztiak, morroiak eta irakasleak, txunditurik utzi, ikasle izatera pasa eta Salamankako katedran irakasle apartekoa izatera heldu zen.

* * *

Mendiburu oiartuarra, hiruretan gazteena, Kardaberaz baino bost urte geroago jaio zen. Honek ere Donostiako jesuiten ikastetxean egin zituen gazte-tango ikasketak eta hamazazpi urte zituela Villagarciaiko nobiziadoan jesuita sartu eta botoak egin beste biek bezala –hantxe dago hirurok lehen bi botoak

egin zituzten erretaula ederra-, eta hamaika urte luzeko ikaskuntzen ondoren Valladoliden amaitu zuen hirugarren probantza 1736an, handik Iruñera joateko bederatzi urtez kolegioko mutikoen irakasle izatera eta ondoren Loiolara, Gipuzkoako eta inguruko herrietan misioak urtebetez ematera.

* * *

Hirurok aurkeztu ditugunez gero, itzul gaitezen jada Kardaberazengana. Hirurok elkarren lagun izan zirela esan dut, baina ez neurri berean eta ezaldi berean. Ikus dezagun. Elkar ezagutzen lehenak Larramendi eta Kardaberaz izan ziren. Ikusi dugu non eta nola. Kardaberaz eta Mendiburu, aldiz, urtebaten aldearekin sartu ziren Jesusen Lagundian: hura 1721ean, hau 1725ean; hura 18 urte zituela, hau 17; beraz nobiziadoko urte bat batera egin zuten, nahiz kurtso banatan. Filosofiakoa eta teologiakoa ez, baizik bereiz: hernaniarrak Palentzian, non izan baitzuen Larramendi irakasle, eta Valladoliden; oiartzuarrak Medinan eta Salamankan. Horrez gain Larramendi ez zen behin ere Mendibururen irakasle izan.

Ez hori bakarrik; Larramendi eta Mendiburu ez ziren behin ere elkarrekin etxe berean bizi izan, salbu lehentxeago esan bezala, Mendiburu Iruñeko lehen bederatzi urteak amaitu eta Loiolara urtebeterako, 37 urte zituela, joan zen arte (1745-1746). Eta urte hartan, halabeharrez, Kardaberaz ere han bizi izan zen; beraz hor ditugu hirurok urte hartan, eta ez beste inoiz, elkarrekin bizitzen. Lăstima Loiolan orduko hiruron argazkirik ez gordetzea! Egia da, bai, Mendiburuk sei edo zazpi irtenaldi egin zituela kurtso hartan misioak ematera, bai eta Larramendik sarritako irteerak egin bere arazoak konpontzera, baina ofizialki bederen eta katalogoari sinetsi behar badiogu, urte hartan hirurak etxe hartako biztanle izan ziren.

Baina hortik gutxi ateratzen dugu bien arteko onginahiez edo gaizkianahiez. Proba seguruak nahi ditugu. Bada, begira: denok dakigu Mendiburuk, Ciceron euskalduna deituak, urte hartan (1745) misioek uzten zizkioten tartetan Aita Croisseten frantsesezko liburua moldatu zuela euskarara eta nagusiek Aita Larramendiri eskuratu bere iritzia eman zezan. Nola hartuko ote zuen? Hasi eta berehala honela dio:

«Jaquin ez ecen, iracurri ere badet órrez ta ártetaz zure escuscribatua: eta icusias ta erabilliaz, are gueiago ezagutu det lan onén anditasuna. Gáyari banagóca bătetic eta béstetic hizecúntzari, baderitzat, guezurtatzen dituzulá Erdáldunen ta Euscáldunen ustéqueta charrac ta deseguiten ta ayenatzen gucien lausóac ta lli lluraménduac».

Dudan gelditu bazarete alde ala kontra ari zaion, entzun gutxi hauek: erdia eta laurdena ere aldatzea ezina baita. Entzun ia bukaerako hitzok:

«Aterázazu béráz zure libru hori, eta len baño len banaezazu Euscalerrietan; batézere non eta Jesúsén ballerá sántuac jasó dituzun, ta lenágo jasoac ceuden. Iracurricó dute alá Eleizetan nola echéetan, eta Eusqueraz utsic daquitenac ta Gaz-

telania arrastaca báicican eztaquitenac ere, naico dute beñ baño gueyágotan aditu, icasi eta gogoán sartu hitzéz predicatú ciniena ta oraingótz bearbadá azturic daucatená»

Ederra bi azken perpaus hauen lotura! Gutxitan ikusi da hainbeste laudorio eta gorapen batera! Bistan da Larramendik adiskideki eta gizonki jokatuzuela. Eta Mendiburuk? Gaur ere maiz egiten den bezala, Larramendik zentsuratu duen liburuari berak ezarri dio hitzaurrea –bi zati eder oraintxe entzun ditugu–; halaber Mendiburuk bere liburuari bi orrialde luzeko hitzondoak ezartzeko eskubidea duela iruditzen zaio –hik hitzaurrea eta nik hitzondoak!–, eta Larramendirena bezain txinpartatsua eta goragarria ez, baina bai zinezkoa eta bihotzekoa. Entzun:

«Aita Manuel de Larramendiren zerbaít berri badezu: baina zembat gizon andi oni zor diogun Euskaldunak, ongi beintzat, ez dakizu. Zori onean utzi zituen Valladolidko ta Salamankako katedrak, baita Españiako Erreginaren konfesionarioa ere. Horiék utzi ta bere Aita San Ignazioren etxera bildu ez balitz, ezin egin zitzakean agertu dituen euskararen gainezko bere bi libru andi ederrak. Nere esanak zerbaít balio badu, esan dezaket (eta ez dut esaten bihotzean dadukadana bai-zik), ez nuela uste jayo edo jayoko zela, onek orietan ta lenago atera zuen *Euskararen ikasbidezko* libruan egin duena egin zezakeen Euskaldunik. Orain Aita Larramendik egin duena egin balu norbaitek orain mila urte, dadukanetik beste itxura izain zuen gure Euskarak. Badugu bizi garanak, eta izain dute gure ondo-koak nondik atera bear den guzia edertzeko ta apaintzeko euskarazko hitzkera leuna. Ondasu hau guziok zorko diogu Aita Larramendiri.

Nik besterik ere zor diot; bada Jesus maiteak nai izandu du zerbaít arindu ilunsko zegoen nere bihotza Aita onen eskuz. Beldurrak nengoen Euskararen ta Jesusen Bihotzaren Debozioaren galgarria izan zedin nere libru hau; aguertzeko zegoenean artu dut Obispo Jaunaren Lizenzia ren ondoan dagoen Aita Larramendiren karta: ta hau irakurtzearekin aienatu dira nere beldurrik geienak. Artu nuenean esaten zitzaidan ager nezala libruarekin batean, ta zetorren bezala. Esan hau egitea zerbaít kostatu zait, bada ikusiko dezun bezala badaude an lotsatzen nauten ta ez dagozkidan zenbaít gauza, baina gal ez ditzatzun ango erakusteak eta gauza onak, egin dut azkenean. Kontuz irakurri zazu, ta siñistu zazu, geiegi nai ez balit, ezin esan zitzakeala nere fabore esaten dituen gauzak. Besteak artu itzazu ta egizu oriekin aditzera ematen dizuna».

* * *

Ez dirudi andoindarra haserre geldí zitekeenik, halako ordain ederreko erantzuna harturik. Ezin uka estimatzen zutela elkar bi gipuzkoarrok. Hala izango al zen urte batzuen buruan? Larramendi bere neurri gabeko arazoetan –ia beti Gipuzkoakoetan– nahaspildua zebilen eta Loiolako txokora itzultzen zenean, bere *Corografía*, *Autobiografía*, *Fueros de Guipúzcoa* eta beste zenbaít idaztitan/liburutan murgiltzen zen. Azken arte izan zen, ordea, jesuitek argitaratzen zituzten liburuen aztertzaile.

Mendiburu bere aldetik Iruñera itzuli zen Loiolatik eta eskolak ematen aritu zen, eta lehen bederatzi urte bezala, orain beste bederatziko bi sail eman zituen irakasten. Horiez gainera ez zen nekatzen liburuak idazten eta beste bost edo sei egin zituen, hala nola *Otoitz-gaiak* (1759), *Jesusen amore-nequeei dagozten...* (1760), *Euscaldun onaren biziera* (1762), etab.. Zer esanik ez, lehen ere egin zuen bezala, misioak etengabe eman zituela Nafarroan batez ere, baina Gipuzkoan ere bai eta are Iparraldeko zenbait herritan. Hirutan esaten digu berak, nahiz eta ez digun esaten non. Baita Mariaren kongregazioak sortu ere, batez ere beste herrietatik Iruñera zerbitzatzera joaten ziren neskatenak.

Gauzak geroago hasten dira bien artean sumintzen, eta guztia, dantzei buruz Mendiburuk idatzi zuen beste liburu bategatik eta Larramendik epaitu zuenagatik. Ia-ia pardelak prestatzen ari ziren Carlos III.ak jaurtikita erbestera joateko. Bestela esan, Mendiburuk idatzi zuen azken liburua zen eta mila zazpiehun hirurogeita bostean –lehen Larramendiri buruz halako laudorioak entzun genizkion harengandik hona hogeitaz urte baizik igaro ez direnean– aita probintzialari gutun bat idazten dio haserre bizia azalduz, Larramendiren azken epaia edo erabakia edo asmoa ezkutatu diolako: ez diola, Larramendik alegia, inola ere utziko argitara ematen aldatu eta bigundu gabe halako liburua, hain dotrina estua seigarren aginduko bekatuez eta dantzez ematen zuena. Larramendik ez zekien gauzak isil-misilka esaten eta bere zentsuran hitz hauekin tratatzen zuen Mendiburu:

«requemado, hijo de oiarzun, duro de juicio, temoso ruin, hoy-más-furioso-y-rabioso-que-nunca, transportado o loco que necesita volver en sí; oiarzuar isitia, buru gogorra, setoso charra, iñoiz-ere-baño-sutuagoa-ta-amorratuagoa-zaudena; zentza zaitex, bada».

Liburu lodia zela badakigu, dantzen kapitulua 699. orrialderaino iristen zela esaten baitigu, eta Mendiburuk ezin izan zuela berekin eraman desterrura. Ez dakigu, aldiz, non galdu zen edo zer gertatu zen hartaz, Carlos III.aren soldaduak jesuita guztiak bahitzeko hirian sartu zirenean. Bestalde bihotz oneko gizona zela ez da dudarik, nagusiari idatzi baitzion esanez, nagusien baimenik gabe ez zuela nahi letra bat ere inprima zedin. Azkenik Larramendiren osasunaz honela diosku:

«se halla hace seis meses tullido de piernas y con la proa de sus pensamientos vuelta hacia la eternidad».

* * *

Parentesi luze baten ondoren Kardaberazengana gatoz berriro. Larramendik eta Mendiburuk behartu gaituzte aurrena beren historia kontatzera, hirurak urte hartan Loiolan zirenez gero. Hura 1745-46an izan zen, baina orduko Kardaberazek Hirugarren Probantza Valladoliden bukatzean, Bilboko kolegiara joateko destinoa hartu zuen (1731-1734) eta lau urte osoak han egin, ikasleei eskolak ematen. Handik Iruñera, La Anunciadorakora eta hemen bi urte bakarrik

egin. Lehen udan misio bat eman zuen gaztelaniaz eta hiru euskaraz. Sermoi solteak Artziniegan, Bilbon, Donostian, Hernanin, Bilboko Begoñan. Urte horretantxe fama handikoa gertatu zen Lekeition eman zuen misioa, non orduan Jesusen Lagundiak kolegio txiki bat baitzuen herriko parrokiaren ondoan.

Corpus Christi / Gorpuzti / Bestaberri egunaren zortzigarren eguneko sermoia sona handikoa izan zen Bilbon eta oihartzunak luzaroan entzun dira toki askotan. Mila zazpiehun eta hogeita hamahirua zen. Egun horretan aita Kardaberaz bestetan baino goi-argi biziagoz igo zen pulpitora eta San Andresko elizan egin zuen predikua Jesusen Bihotzari buruz, Bilboko Udala bertan zela; Espainia guztitan lehenbiziko aldiz egiten zena izan zen.

* * *

Gazteago zenean ere ikusi dugu osasuna ez zuela oso sendoa. Orain aitzaki horrekin sendagileek 1734ko eta 1735ko udak Hernanin eta Donostian pasarazi ez ezik, aita Probintzialak bi urte Azkoitiko kolegiara igortzen du batez ere sermoiak egiten eta konfesioak entzuten aritzera, non jasan baitzituen barne-bakardade eta ilunaldi izugarriak.

Orduantxe ari ziren, 1736-1739an, inguruko langileak eta ez hain ingurukoak, baita Oñati bezain urrutikoak ere, bere gogoz hogeit edo hogeita bost egunetarako Loiolara basilika eraikitzen laguntzera etortzen, eta 1738an inauguratu zen basilika berria. Aita Agustin (Kardaberaz) misioak ematen ari zen etengabe Bergaran, Elgetan, Elgoibarren, Elorrión, Oñatin, Eibarren, Mungian, Erandion, Munitibarren, Tolosan, Pasaian, Zaldibian, Zornotzan/Amorebietan, Getarian, Berrizen, Lizartzan, etab. Erraza da aipatzen, baina misio batean inor izan zenak, badaki nolako jipoia zen hura! Zinitz nagusiak deitzen zirenak –lau bototakoak, alegia– 1739ko otsailaren bian egiten ditu eta bertan Oñatira doa bi urterako destinatua Moraleko Kasuen irakasle. 1740ko oporretan, udazkenaren hasieran, misio handi bat eman zuen Azpeitian.

* * *

Zenbait euskaltzainen artean zenbait aldiz eztabaidatu izan dugun puntua egin genezake hemen ere, eta orain arte esandako kontu guztiak baino luzeagoa aterako litzaiguke, baina ez dugu astirik. Aita Lopetegik dioen hartaz ari naiz: 'irudi dakiguke harrigarri nola hainbeste urte Castillan eman ondoren gordetzen zuen euskara, bere lagunetatik asko hizkuntzaren ezaguera galtzera iristen ziren bitartean, eta zer esanik ez, agerian ezin mintzatzera eta sermiorik ezin egitera. Eta Hernanin igaro zituen hiru hilabete haiek lagunduko ziotela dudarik gabe, esaten du, lehendik zekiena gogorarazten. Karta batean ere esaten zuen aita Kardaberazek:

«misioetara iritzeak ematen didan poza bezain handia da hartu behar izan dudana lana trebatzeko euskaraz itzultzen eta apaintzen hogeit orrialde baino gehiago, eta hori erdia baino pixka bat gehiago baizik ez da».

Beste batean hau: Beste gutun batean:

«Aintza Jesus maiteari, nahi izan ez zuelako niri euskara ahaztea: hau da elizkizunak eta sermoiak egin ditudan lehen aldia. Egia da mutikotan nik nekielea euskaraz ongienik eztabaidarik gabe, ez bainekien besterik, baina ez nuen inoiz misiorik entzun eta ez nintzen Lagundian ere hitz egiten saiatu. Eta horregatik denak harrituak zeuden ikusirik ene erraztasuna eta aietasuna, esateraino dakitenek berek ez dutela beste inorengan ikusi».

Nahi gabe ere Larramendiren beste hitz haiek datozkigu gogora:

«...me dediqué a aprender el bascuence.....» (*)

Gero dio:

«Todos los que salen fuera de este país ...han aprendido a hablar solamente dialecto de su tierra ... y por el ningún uso aun ése se les olvida con el tiempo. Esto me sucedió a mí como a todos los demás y me fue preciso renovar las especies del bascuence, imponerme primero en mi dialecto guipuzcoano y después en los otros...»

* * *

Baina lot gakizkion berriro Kardaberazi. Misioak ematen jarraitzen du etengabe eta kongreraioak eraikitzen. Eman zituen zenbaiteko aktak ezagutzen dira: Elorrio, Berriz, Zornotza/Amorebieta, Markina, Leza, Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz, Ataun, Abaltzisketa, etab. Askotan beste jesuita batek lagunduz ematen zuen misioa ez leher eginda akabatzeko; hala aipatzen dira Jose Zubimendi, azpeitiarra eta Tomas de Guridi, lehena Kardaberazi eta bigarrena Mendibururi laguntzen, lehena Hondarribian eta bigarrena Mutrikun. Esan dugu 1740an eman zuela misio bero bat Azpeitian eta gero ere segitzen du, neke seinale handirik eman gabe, Gipuzkoa guztian barrena, Bizkaiaren zati handi batean, Nafarroan eta are Araban misio bakar batzuk ematen. Geroztik guztiz Loiolan bildua bizi izan zen, gorputzeko oinazeak, buruko minak eta erreumak ere bizitu egin baitzitzaizkion. Orduko emanak omen zituen 100 misio baino gehiago, erraz esaten da!. Ez zion utzi halere Loiolako etxe barruan lagun talde txikiago edo handiagoei Gogojardunak emateari, hala gizonezkoei nola emakumezkoei, haien kontzientzien direkzio pertsonala bere gain hartzen zuela. Esan daiteke geroztikako Gogarte Etxea deritzanaren sortzaile bera izan zela. Garai horretakoa da (1745), esan dugun bezala, jada hamaika bider aipatu ditudan hiru jesuita famatuek Loiolan elkarrekin eman zuten urtea.

* * *

Hortik aurrera hasten da Kardaberazen bizimodu berria eta azken etapa. Loiolan bizi da ia erabat. Baina ez da Loiolan bakarrik bizi, baizik Loiolako azken urte hauetan bizitzen eta arintzen zaio ordu arte gelditua eta lo gisa edu-

(*) Larramendiren Hiztegi handiak gauza txar bat du, ez duela sekula datarik ematen.

ki duen eskua. Artean ez zen haren libururik ezagutzen, non ez den hiru jesuiten artean Burgosen egina, Euskal dotrinatxoaz zeritzana. Ezagutzen ditugun gainerako guztiak geroagokoak dira. Aita Lopetegik «escritor nato» izan zela esaten du, baina abagune jakin batzuek eta batez ere bere apostoladutzako gogo biziak esplikatzeko duela liburuak argitaratzen izan zuen atzerapena. Erlijioso egin zen bezain laster hasi zen bere barne bizitzako fenomenoak anontzen. Literatura gizon izateko grinarik ez du, hori ez; baina horrek ez du esan nahi ez zituela ezagutzen humanista on baten gramatikako eta erretorikako legeak, bere *Euskeraren berri onak* liburutxoan azaltzen duen bezala. Hori bai: helburu praktikoa da berea, ez estilistikoa, aztertzaileei behin eta birritan esaten dien bezala, haiek Kardaberazek huskeriak deritzanak zuzentzen dizkiotenean:

«Aunque por ahora salgan estas cosas con muchos defectos en todo, como VV. RR. me aseguren en lo principal que mira a la doctrina sana y segura, lo demás me da poco cuidado y pena».

Eta hau ere bai:

«Si... gustase V. Rev. borrar lo que quisiere o que yo lo borre, lo haré con gusto, por dárselo; pues como yo logré el fin de sacar algún bien de las almas, nada se me da que sea por este camino u otro, por este medio u otro».

Larramendi Kardaberazekin errukigabea dela esatera nindoan idazten dituen santukeria batzuk sartzen dituenean, baina ez, zinezko errukia eta maitasuna diola uste dut, nahiz batzuetan bereak eta bi esaten dizkion:

«Mal dicho, Cristo sufrió los tormentos, no se dió a su cuerpo». «No hay tal, de dónde lo sabe?». «Para qué son devociones mal fundadas?».

Kardaberazaren erantzuna: «*No están mal fundadas*».

Ez ahanztu, izan ere, Kardaberazek *Acto Mayor* egin zuela nota on-ona atereaz eta teologia bazekiela, baina Larramendik askoz gehiago, zeren besteen teologiako lau urteak bukatzean, hiru gehiago ikasarazi baitzizkioten *Perficít* gisa –orduan *Colligít* deitzen zuten– irakasle heldu baten laguntzaile lanetan jarduteko eta bera egun batean Fakultateko irakasle izateko. Eta iseka dirudi, baina gertatua da: Kardaberazek aingeruei buruz egin zuen *Acto Mayor* hura; bada behin liburuxka batean horietaz ari zela, Larramendik hau bota zion aurpegira:

«Según la común sentencia, a san Gabriel se le encomendó todo lo que toca a la Encarnación. Quitese lo de esotros ángeles!».

Baina Kardaberazek ere bazekien erantzun sistariak ematen. Pasarterik ezagunena eta ederrena, nahiz eta luzeena, Larramendiren zuzenketez asper-tuta, Kardaberazek aurpegira hau jarki zionekoa dateke:

«Pido perdón y tengo voluntad de enmendarme. Mas no prometo el acierto, por falta de conocimiento práctico y a lo menos actual advertencia. Son muy

pocos los que con rigor saben el bascuence según toda su extensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de sus conjugaciones, ni yo soy de estos pocos, y acaso será V.R. solo, y no ay más. Si con reñirme más, más de gana, pudiera V. R. infundirme o meterme en esta mala y dolorida cabeza parte de su noticia y conocimiento de todo el bascuence, me haría un favor inestimable. ¡Válgame Dios por Maestro! Ya preguntaré algunas dudas sobre los artículos con varios nombres. V.R. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence o del bascuence, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc.»

Zati antologikoa!

* * *

Larramendik ez bezala, Kardaberazek dozena bat liburu idatzi zuen euskaraz. Hala modukoak, esango du norbaitek. Esan dugu erbestera abiatu baino sei urte lehenago arte ez zela hasi liburuak idatzen eta ez zuela inoiz izan literatura bikaina ereiteko asmorik, baizik arimen ongia iristekoa:

«...como yo logre sacar algún bien de las almas, nada se me da que sea por este camino u otro...».

Argitaratzen zituen liburuen saltzaile eta banatzaile bihurtu zen, gainera, gure garaietako aita Placido Mugika bezala, bere kristauei on egiteko asmoz. Baina asmo garbi hori ere ez zion opa izan Madrilek, zeren desterrura abiatzeko ia bezperan, 1766an, Arandako Condeak eragotzi egin baitzion argitaratzea San Inazioaren bizitza:

«Oraindik espetxean daude inprimatzaile batzuk»,

idatzi zion zenbait hilabete geroago iloba batek. Arandako Condeak berak debekatu egin zuen bizpahiru hilabete geroago liburutxo hori argitaratzea euskara ez zen beste hizkuntzetan ere.

* * *

Kardaberazek berak argitaraturiko bederatzi aipatzen ditu Aita Lopetegik. Hona batzuk:

- A) *Kristauaren Bizitza*, 1760.
- B) *Euskeraren Berri Onak*, 1761.
- C) *Aita San Ignazio Loiolakoaren Ejerzizioak*, lau obra, 1761.
- D) *Doktrina Kristiana edo Kristiñau Dotrinea*, 1762 (?)
- E) *Justuen ispilu argia*, 1764.
- F) *Jesus, Maria ta Jose*, 1764.

– G) *Senar emazte batzuk*, 1766. Horiez gainera bere bizian argitaratu ezin izan zituen beste lauzpabost.

* * *

Bi gauza ageri dira azken lerro hauetan. Bat, Kardaberazren obra guztiak azken sei urteetakoak dira; bazuen erraztasuna euskaraz idazteko. Bi: haren obrak irakurtzean ulertzen du batek nolatan Larramendik sastakatzen zituen Kardaberazren obrak teologiaren aldetik, ez ordea hizkuntzarenetik; aitzitik, nola alde horretatik ez zien behin ere zuzenketa txikienik ere egin, erraztasuna izan ez ezik euskara zuzen eta jatorraren jabe baitzen.

* * *

Bukatzeko bi hitz haren heriotzaz. Loiolan bahitu zuten beste hamalau lagunekin batera 1767ko apirilaren bitik hirura bitarteko gauean. Hamahiru hilabete lehenago hil zen Larramendi. Hobe! Ez zuen desterruaren erresuminik ezagutu. Oñako mendixkara etxearen solairu gorenetik begira 1766ko urtarrilaren hogeita bederatzian. Ongi hiltzen laguntzeko alde banatan izan zituen Kardaberaz eta aita Mendizabal lekeitiarra, erretore jauna. Kardaberaz bere lagunekin eta Gipuzkoatik eta Nafarroatik gehitu zitzaizkien beste guztiekin 26 egun egon ziren Donostian desegokitasun handienaz, harik eta ez dakit non aurkitu zituzten bi itsasontzi sastarretan *Civitavecchian*, Aita Santuaren lurretan, jo zuten arte. Baina honek Carlos III.ari men ez egitearren, ez zituen hartu eta Corcegan bildu behar izan zuten. Hamazazpi egun zain egon ondoren, Calvira iritsi ziren mila zailtasunen ondoren. Aita Kardaberazek Genovako/Genoako gogarte-etxean aurkitu zuen bere kabia gaixorik eta 1770ko urriaren 18an hil zen. Goian bego.